


# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Arrano Etxea:  
animalia basatien ostatu**

Kaixo herrikide!!!

Iraila eta urriarekin iritsi da ikasturte berriari ekiteko garaia eta ale hone-tan atal berezi bat eskaini diogu horri. Horrez gain, beste hainbat kontu ere bildu ditugu: Euskaraldia, Kooperatibaren batzarra, armarría, Herri Kontseiluaren azken eskae-

rak... Atzera begira atalean, berriz, Ernioko gurutzearen historia ekarri dugu gogora eta Kontu Kontarin, Arrano Etxera egin dugu bisita. Eta noski, ez dugu ahaztu Udazken Festa. Azken orrian duzue egitaraua. Gustatuko zaizuelakoan... on egin!

## Dorronsoro anai-arrebak, Gure Esku Dagoren abestian

Donostiako Gure Esku Dagok galdeke-ta egingo du azaroaren 18an, Igeldon eta beste hainbat herritan egin bezala. Eta aurretik, kalejira erraldoia egingo dute urriaren 28an. Egun horri begira, abesti bat prestatu dute, kalejira bat, eta abesti horretan, Iker eta Gurutze Dorronsoro anai-arreba igeldotarrek

hartu dute parte trikitixa eta pandero-arekin. Donostia eta inguruko musikari ugarik hartu dute parte. Musika Joserra Senperenak sortu du eta letra Harkaitz Canorena da. Orain gutxi egin dute aurkezpena eta hasiak dira sare sozialetan eta inguruko taberna eta txokoetan zabaltzen.

*Esku artean duguna,  
gure esku da benetan?  
Nahiago nuke egongo balitz  
eskuen orde z hatz puntan...*

*Hatz puntetan egon dadin,  
bai azal eta bai mami,  
iritzi eta boza batera  
plaza erdira ekarri.*

*Enbata badator, aizu,  
segiko dugu jo ta su!  
Mundua aurka omen daukagu,  
gu ez al gara ba mundu?*

*Elkar entzuten ikasi  
genuen guk adi-adi:  
oihu bakar baten orde z  
milaka deiadar txiki;  
gure esku egon dadin  
bai azal eta bai mami.*

*Behingoagatik gurea  
izango da albistea:  
sutan jartzean probatuzten da  
nolakoa den eltzea!  
Hamaikatxo izateko  
ekarri bi hamarreko:  
zortziko hauxe osatu dugu  
bostekoari bosteko.*

*Enbata badator, aizu,  
segiko dugu jo ta su!*

*Mundua aurka omen daukagu,  
gu ez al gara ba mundu?*

*Asko entzun, asko mintza,  
bizitzeko da baldintza.  
Esku hutsik gatoz baina,  
eskuetan dugu giltza:  
biluzik gatoz mundura,  
janzteko daukagu hitza.*

*Enbata badator, aizu,  
segiko dugu jo ta su!  
Mundua aurka omen daukagu,  
gu ez al gara ba mundu?*

*Ahotsetik dator poza  
eta pozetik ahotsa:  
ahots ozen bereziak,  
ez artalde, ez ardiak...  
Gurea baita doinua,  
ta gu gara dantzariak.*

*Enbata badator, aizu,  
segiko dugu jo ta su!  
Mundua aurka omen daukagu,  
gu ez al gara ba mundu?*

*Iritzi aske batera  
eskutik helduko gera,  
eskuetan daukaguna  
sinetsiz badaukagula:  
hatz puntetan egon dadin  
bai azal eta bai mami.*

## Euskaraldian izen ematea zabalik dago

Ahobizi edo Belarriprest izateko, kultur etxean edo Txapelan eman daiteke izena.

Igeldok ere parte hartuko du Euskaraldian eta izen ematea zabalik dago. Parte hartu nahi duten herritarrek Ahobizi edo Belarriprest izango diren erabaki behar dute eta ondoren izena eman. Itsas Aurre kultur etxean edo Txapelan eman daiteke izena eta baita internetez ere: euskaraldia.eus.

### Zer da Euskaraldia?

Hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa bat da. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte, Euskal Herri osoan eramango da aurrera. 11 egunez, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz aritzea da ariketa.

### Nork hartu dezake parte?

16 urtetik gorako herritarrek eman dezakete izena.

- Ahobizi izateko, euskaraz hitz egiten jakin behar da.

- Belarriprest izateko, euskara ulertu behar da gutxienez.

### AHOBIZI:

Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark euskaraz nahiz erdaraz erantzun. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

### BELARRIPREST:

Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

# Hainbat ekintza, Euskararen Egunari begira

Azaroak 30 eta abenduak 2ko asteburuan antolatuko dira ekintzak.

Abenduaren 3a Euskararen Eguna da eta aurreko urteetan bezala, aurten ere ekintzak antolatuko dira Igeldon egunaren bueltan. Oraindik zehazteko daude ekintza horiek, baina azaroaren 30 eta abenduaren 2ko asteburuan izango direla aurreratu dute. Gainera, aurten berezia izango da Euskaraldia ere bete-betean izango delako. Hori horrela, antolakuntzan lanean ari direnek dei egiten diete herritarrei bai ekintzetan eta baita Euskaraldian ere parte hartzeko.

# Igeldon girotutako eleberria argitaratu dute: "Temporada de galernas"

Maria Pilar Lopez Vallejok Igeldon girotutako eleberria argitaratu berri du (irailak 28). "Temporada de galernas" du izena eleberriak. Asmatutako trama du, baina gerra aurreko garaian kokatzen da eta Meteorologia Behatokian, zehazki. Idazlea, bertako langilea da eta istorio honekin ezagutzera eman nahi izan du euskal kostako klimaren berezitasunak, bertako fenomeno ohikoenak, eta batez ere, behatokiko historia, aurreko mendera salto eginez.

Eleberria, 316 orriko liburua da eta gazteleraz dago idatzia. Independently published da argitaratzailea. Amazonen dago erostgai.

# Kooperatibak batzarra egingo du azaroan

Batzarra azaroaren 11n izango da goizeko 11:00etatik aurrera, Itsas Aurrean.

Igeldoko Kooperatibak batzarra egingo du azaroaren 11n (igandea). Goizeko 11:00etatik aurrera izango da, Itsas Aurrean. Hori horrela, bazkide guztiei dei egiten diete bertaratzeko.

Landuko dituzten gaien artean, honakoak izango dira: obra aurrekontuak, bazkidetza motak, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa, izen korporatiboa eta logoa, crowfaundinga...

## Udazken Festan, postua

Kooperatibako kideak eskuartean duten proiektuaren inguruko informazioa zabaltzen ariko dira Udazken Festan. Igande goizean, azoka dagoen bitartean, postua jarriko dute eta azalpenak ematen ariko dira.

**IGELDOKO SINDIKU GUNE B**

**Kontsumo sustatuz, kontsumo**

IGELDOKO eredu, eskuzko haurra, bertatik eta igeldon barnean. Hori horrela, bazkide guztiei dei egiten diete bertaratzeko.

**PROIEKTUAREN**

**ANIMATU, AURRERA EG**



# Herritarrek aukeratuko dute armarrria

Armarria aukeratzeko prozesua bukatzean da eta laster izango du Igeldok ere berea. Horretarako, aurkeztutako lanen artean, herriko taldeetako ordezkariak finalera pasa

diren lan batzuk aukeratu dituzte eta orain, herritarrek aukeratuko dute irabazlea. Udazken Festan izango da hori. Igande goizean, azoka dagoen bitartean, herritarrek bozkatzeko

aukera izango dute eta bertatik aterako da armarrria irabazlea.

Hori horrela, herritarrei animatzeko eta parte hartzeko dei egingo die Herri Kontseiluak.

## Hurrengo pausoa, pentsionisten inguruko hitzaldia eta afari-merienda

Irailaren 21ean, 65 urte ingurutik gorakoekin bilera egin zuen Herri Kontseiluak kultur etxean. Herri Kontseiluaren helburua, adin horretako herritarren iritzia jasotzea zen. Besteak beste, herrian ekintzarik faltan botatzen ote duten, hilean behin elkargune bat jartzea nahi ote luketen...

Iritziak askotarikoak izan ziren, baina hurrengo pauso bezala, urriaren azken ostiralean (urriak 26) pare bat ekintza antolatzea erabaki zuten, Udazken Festaren barruan. Hori horrela, pentsionisten inguruko hitzaldia izango da Duintasuna elkartearen eskutik eta ondoren, afari-merienda. Asmoa da lehenengo bilerari jarraipena



Gonbiteari erantzunez, 9 lagun elkartu ziren.

eman eta aurrerantzean egin daitekeenari buruz hitz egitea. «Jubilatu, edadetu, ez hain zahar,

ez hain gazte eta gazteei zuzentzea» izango dela adierazi dute eta animatzeko dei egin dute.

## Dinamizatzailea bajaran

Azarotik aurrera, herriko dinamizatzailea bajaran izango da. Apirila-maiztza inguruan bueltatzea aurreikusten da.

Hori horrela, Itsas Aurreko bulegoa ez da ohiko ordutegian zabalik izango, baina Herri Kon-

tseiluko kideek ordezkatu-ko dute neurri batean bere lana eta beraiekin harremanetan jartzeko bideak honakoak izango dira: telefonoa (943313030 / 606311734) eta emaila: herrikontseilua@igeldo.eus.

## Pala Txapelketa, neguan zehar

Neguan zehar ere, herria girotzeko asmoz, Pala Txapelketa antolatuko dute Herri Kontseiluak eta Pelota elkarteak elkarlanean. Oraindik

zehazteko dauzkate noiz hasiko den eta izen ematea noiz irekiko den, baina adi egoteko azaldu dute, berandu baino lehen izango baita.

## Ze koxka eta oztopo kendu beharko lirateke plazan?

Urriaren 23an bilera irekia egingo da.

Plazan eta inguruko eraikinetan dauden oztopo eta koxkak egokitu egin behar direla ikusten du Herri Kontseiluak, baita komun publikoak ere, eta gaia lantzen ari da. Donostiako Udalak Donostia

mailako irisgarritasun plana diseinatuko du eta proposamen bat luzatu nahi dio Herri Kontseiluak, aurretik. Hori horrela, Herri Kontseiluak herritarrekin bilera irekia egin nahi du beraien iritzia eta proposamenak jasotzeko. Bilera hori urriaren 23an izango da 18:00etan, Itsas Aurrean.

# Sinadurak biltzen, Babes Ofizialeko Etxebizitzak igeldotarrentzat izateko

Herriko puntu ezberdinetan daude orriak sinatzeko eta Udazkan Festan ere mahaia jarriko dute, igandeko azokan.

Festen bueltan, Herri Kontseiluak martxan jarri zuen sinadura bilketa Babes Ofizialeko 36 Etxebizitzak igeldotarrentzat izateko eskatuz. Lanke-ta sakonagoa egiteko asmoa du Herri Kontseiluak eta gaia aztertzen ari da. Dena dela, gogorarazi du sinadurak biltzen jarraitzen duela eta herriko puntu desberdinetan dagoela aukera orria sinatzeko: kultur etxeko bulegoan, Txapela tabernan, Mendizorrotz tabernan eta Calongen.

Horrez gain, internetez ere badago sinatzeko aukera change.org atariaren bidez. Dena dela, aukera izanez gero, Herri Kontseiluak adierazi du hobe dela paperean sinatzea.

Bestalde, ahalik eta sinadura gehien lortzeko, herritarren laguntza beharko duela ere azpimarratu du.

**Mahaia Udazken Festan**  
Udazken Festan sinadurak biltze-

ko mahaia jarriko dute. Igande goizean izango da, azoka dagoen bitartean.

Herri Kontseiluak gogorarazi du Igeldoko Babes Ofizialeko Etxebizitzak egin zirenean, horietatik 36 igeldotarrentzat izatea lortu zela, ederki borrokatu ostean: «Gaur egun, ordea, jabe aldaketa dagoenean, Donostiako Udalak ez du onartzen baldintza hori; eta hori ezin dugu onartu».

## Eskaera Udalean: "Boca de riego" eta hidranteak gertu dauzkaten baserri eta etxeek, giltzak eta mangerak eskura izatea

Herri Kontseiluak eskaera berri bat luzatu dio Donostiako Udalari, suteei aurre egiteko neurri gisara: "Boca de riego" eta hidranteak gertu dauzkaten baserri eta etxeek giltzak eta mangerak eskura izatea proposatu dio Herri Kontseiluak, «suteren bat piztuko balitz, bertako bizilagunek lanean hasteko aukera izan

dezaten suhiltzaileak iritsi bitartean». Suteei aurre egiteko 2016ko planaren arabera (PAMIF), 47 boca de riego eta 37 hidrante daude Igeldon eta Herri Kontseiluak suteen aurrean arrisku gehien izan dezaketen zonaldeetarako eskatu ditu giltzak eta mangerak.

«Dakigunez, beste herri ba-

tzuetan halako neurriak badituzte (Astigarragan, esaterako), eta Igeldorako ere egokia eta baliagarria izan daitekeela pentsatzen dugu», gaineratu du.

Herri Kontseiluak gaiaren inguruko idatzia aurkeztu du Udal erregistroan eta bilera baterako deialdia jaso berri du. Zehazteko dago.

# Eman botoa Itsas Aurreko fatxada konpontzeko, txukuntzeko eta margotzeko

Donostiako Udalak "Aurrekontu partehartzaileak" ekimena jarri du abian eta proposamenak egiteko aukera izan zen uda aurretik. Herri Kontseilutik 23 proposamen egin ziren eta bakarra pasa da azken fasera: Itsas Aurreko fatxada konpontzea, txukuntzea eta margo-

tzea. Orain herritarrek (Donostia mailako guztiek) botoa emateko aukera dute (urriak 8-21) eta boto gehien lortzen dutenak eramango ditu aurrera Udalak (3.250.000 euro erreserbatu ditu ekimen honetarako).

Herri Kontseiluarentzat bazeu-

den premia gehiago zuten eskaerak, baina Udalak egin duen aukeraketan horixe pasa da azken fasera. Beraz, herritarrei dei egiten die botoa emateko. Kontuan izan igande honetan bukatzen dela epea (urriak 21). Botoa emateko: donostia.eus.

# Tamaina handiko tresnak ateratzeko egunak: astelehen, asteazken eta ostiralak

Zabor edo hondakinen gaia behin baino gehiagotan landu bada ere, oraindik arazoak daudela ikusten du Herri Kontseiluak. Hainbat herritarrek nahi dutena botatzen jarraitzen dute eta nahi duten lekuan uzten (Iturrietako kontenedoreetan, adibidez).

Hondakin bakoitza bere lekuan bota behar dela azpimarratzeaz gain, tamaina handiko tresnak noiz atera behar diren gogorazi nahi du Herri Kontseiluak: astelehen, asteazken eta ostiraletan 21:30etatik 22:30etara.

PAPE-KARTOIZKO  
EDUKIONTZIAK,  
EGUNKARIAK,  
ALDIKARIAK...

BEIRAZKO ONTZIAK,  
BOTILAK, BEIRAZKO  
POTEAK ETA FLASKOAK

PLASTIKOZKO,  
METALEZKO ETA BRIK  
MOTAKO ONTZIAK

FILAK

EHUN-MATERIALAK:  
JANTZIAK ETA  
OSAGARRIAK

ERABILITAKO LANDARE-  
OLIOA

ETXEKO HONDAKIN  
ARRIKUTSUAK

SENDAGAIAK

ETXEKO KONPOSTATZEA

TAMAINA HANDIKO  
TRESNAK: ALTZARIAK,  
KOLTZOIAK...

APARATU ELEKTRIKO ETA  
ELEKTRONIKOEN  
HONDAKINAK



BAI:

Tamaina handiko hondakinak dira eta, beraz, udal bakoitzak adierazitako ordutegietan edukiontzien ondoan utzi daitezke ondorengo objektuak:

1. Altzariak: besaulkiak, sofak, aulkiak, aresak...
2. Koltoiak eta somierak
3. Lerro zuriko ebetresna elektrikoak: garbigailuak, hozkailuak...
4. Telebistak
5. Aparatu elektroniko bikiak: ordenagailuak, irabiagailuak, plantzak...

Hondakin horien, modu berean, garbigunera » eraman daitezke.



EZ:

Ondorengoak ezin daitezke edukiontzien ondoan laga:

1. Eraikuntza-hondakinak, obra-hondarrak, San Markoko zaborteria.
2. Paletak, Garbigunea
3. Kristalak, Paletak, Garbigunea
4. Komun-ontziak, San Markoko zaborteria.

igeldo.eus web orrian informazio zehatzagoa dago.

# Herri Kontseiluko hauteskundeak izango dira maiatzean

Udal eta Foru Hauteskundeekin batera, Herri Kontseiluko hauteskundeak ere izango dira maiatzean. Abenduan jarriko da abian prozesua. Ohi bezala, hautagaiak proposatzeko epea zabalduko da

eta herritar eta eragileek hautagaiak proposatzeko aukera izango dute. Baiezkoa esaten duten hautagaien artetik, herritarrek aukeratu dituzte bozka bidez Herri Kontseilu berria osatuko duten

kideak.

Herri Kontseiluko kideek herritarrei dei egiten diete animatzeko prozesuan parte hartzen, bai hautagaiak proposatuz, hautagai bezala aurkeztuz edota bozkatuz.

# «Oso gustora», Garagardo Azokaren emaitzarekin

Azokan lortutako diruarekin eta asteroko zozketarekin, abokatuarekin duen zorra ordaintzeko moduan izango da aurten Itsas Aurre. Dena dela, gastu gehiago etor daitezkeela azaldu du, prozesua ez baita bukatu.

Oso gustora dira Itsas Aurreko kideak uztailean antolatutako Garagardo Azokarekin. Bertan lortutako diruarekin eta urtean zehar martxan duten asteroko zozketaren bidez aurtengo urtean abokatuarekin duten zorra ordaintzeko adina diru lortu baitute.

Azokaren helburu nagusia zor ekonomikoa gainditzeko dirua lor-

tzea zen arren, azoka berezia antolatzea erabaki zuten, bertako artisau garagardo eta jakiz horniturik. Horretarako Kooperatibarekin elkarlana egitea erabaki zuten, azokaren planteamenduak Kooperatibaren filosofiarekin bat egiten zuela ikusirik. Balorazio oso positiboa egin zuten azokak izan zuen arrakasta ikusirik eta bide batez eskerrak

eman nahi dizkiete azokara hurbildu ziren herritar guztiei, bai lanera zein ondo pasatzera.

Azkenik, ekonomikoki lasaitua hartu duten arren, oraindik desanexio prozesua epaitegietan dagoela azpimarratu nahi izan dute eta agian oraindik gasturen bat gehiago izan daitezkeela prozesuak aurrera jarraitzen duen heinean.





Herriko gazte koadrila batek 1976an eraman zuen gaur egungo gurutzea.

### ERNIOKO GURUTZEA

Iraileko igandeetan Ernio mendira joateko plana izaten da maiz, iraileko igandeak bereziak izaten baitira Ernion. Zelatungo erromeriak eta jende ugari gora eta behera izan ohi dira bereizgarritasun horiek. Igeldotarrok badugu ohitura berezia Ernio mendiko tontorrera iritsitakoan: bertan dagoen Igeldoko gurutzean argazkia ateratzearena. Zenbat herritarrek izango ote dute argazki hori etxean?

Igeldoko gurutzearen historia aspalditik dator, Ernion jarri zen lehenengoetariko bat izan zen Igeldokoa, hain zuzen ere, 1909ko abuztuaren 29an. Halaxe jakin dugu 1976 urte inguruan herrian zabaldu zen garai hartako "aldizkarian" azaltzen zen informazioari esker. 1909ko abuztuaren 29an Ernioko tontorrera gurutzea igo zutenak honako herritarrek izan omen ziren: Jose Martikorena, Fermin Iradi eta honen semea Juanito, Benito Lizarazu, Praixku Martikorena eta Jose Manuel Zubeldia. Baina gurutzea jarri eta



Gurutze zaharra pintatzera joaten zirenak: Joxe Uranga, Ramon Balerdi eta Iñaxio Etxebestekua.

**A**tal honetan, herriko argazki zaharrak plazaratu nahi ditugu. Herriko historia eta istorioak kontatuz, zer hitz egina eta pentsatua emanaz. Gure asmoa herriarekin lotura duten mota ezberdinetako argazkiak jartzea da, eta bide batez, zure etxeko bazterrak astintzea ere eskatu nahi dizugu, interesgarriak izan daitezkeen argazki zaharrak dituzun begiratu eta gurekin konpartitzeko. Guztion artean lan polita egin baitezakegu. Animatu!

Argazkiak pasatzeko deitu 627 756 185 (Jabier), 645 735 762 (Larraitx) edo emailaz bidali igeldokoorria@gmail.com helbidera.



zaintzeak ere bere garrantzia du eta tartean behin gurutzea pintatzera joaten zirenen artean, batez ere Fermin Iradi eta Jose Martikorena izan ziren.

Geroztik, urte askoan Ramon Balerdi arduratu zen gurutzea zaintzeaz eta ondorenean, Joxe Uranga eta Iñaxio Etxebestekua ere hurbildu ziren Ramonen aldamenara lan hori egitera. Urte askoan beraiek aritu ziren zaintza lanetan. Baina, 1975 urte inguruan, gurutzea lurrian erorita topatu zuen Mariano Urangak. Zergatik izan zen ez zen jakin. Hori horrela, berriro beste gurutze bat eman beharra sentitu zuten zenbait herritarrek eta gaur egun dagoen gurutzea 1976ko Irailaren 26an eramana da. Herriko gazte koadrila batek, gurutze berria berriro bizkar gainean hartu eta Ernioko tontorreraino eramane zuten Igeldotik. Hauek izan ziren koadrila horretako kideak: Uranga 2 anaiak ( Bittor eta Mariano), Jabier Kruz eta Mitxelena, Joxe Miel Arruti, Juantxo Eskudero, Joxe Antonio Martiarena eta Joxe Antonio Olasagasti. Ramon Balerdi ere han zen, gazteen gidari. Ondorenean ere berriro urteroko edo tartekako ardurar izan dute zenbait familiek herrian, gurutzea txukun mantentzeko pintaketa saio bat egitearena. Urangatarrek fiñak izan dira urte askoan lan horretan eta gaur egun ere horretan jarraitzen dute hutsik egin gabe. Bejondeizuela!



Gaur egun, gurutzea zaintzen jarraitzen duenik ere bada.

## Igeldotik Erniora, tapa-tapa

Igeldotik Ernioraino oinez joateko ohitura ere bazegoen garai batean eta azken urteetan, ohitura hori berreskuratu egin da. Din-Din elkarrekin antolatuta, Maiatzaren 1aren bueltan, koadrila ederrak joan izan dira Erniora. Eta aurten ere ez dute hutsik egin hainbat herritarrek. Apirilaren 29an egin zuten Igeldotik Erniorako bidea, tapa-tapa. Tontorrera igo, hamaiketako egin Zelatunen, eta ondoren primerako bazkaria izan zuten zain Din-Dinen. 12 bat lagun abiatu ziren Igeldotik eta beste 7 elkartu zitzaizkien Ernio. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu eta batzuk bakarrik animatu ziren tontorra egiten.



2018-2019 IKASTAROAK			
IKASTAROA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Ingelesa	Astelehen / astearte / asteazken	Mailaren arabera	Eskola
Pianoa	Astearte / ostegun	Bakarka zehaztua	Kultur etxea
Euskal dantza	Ostiral / larunbat	Mailaren arabera	Eskola/kultur etxea
Euskal dantza helduak	Bi ostiraletik behin	19:30-21:00	Eskola
Gitarra	Astearte	Handiak (18:00-19:00); txikiak (19:00-19:30)	Kultur etxea
Hipopresiboak	Osteguna	20:00-20:45	Eskola
Yoga	Astearte	18:30-20:00 eta 20:00-21:30	Eskola
	Osteguna	20:00-21:30	
Zumba	Astelehen eta asteazken	20:00-21:00	Eskola
Trikitixa	Astearte / asteazken / ostegun	Bakarka zehaztua	Kultur etxea
Panderoa	Asteazkena	16:30-17:30 (txikiak); 18:30-19:30 (handiak)	Kultur etxea
Musika tailerra	Asteazkena	17:30-18:30	Kultur etxea
Patin roller	Martxotik maiatzera (zehazteke)		

# 106 ikasle dabilta aurtengo ikastaroetan

Aurten, 10 ikastaro atera dira aurrera. Patin roller ikastaroa udaberri aldera izango da.

Urria aurrera doa eta ikastaroak ere martxan dira dagoeneko. Aurten, 10 ikastaro atera dira aurrera eta denera 106 ikasle dabilta. Oraingo ez da ikastaro berririk martxan jarri, baina iazko gehienak mantendu dira, Robotika eta Pilates izan ezik.

## Ingelesa, yoga eta euskal dantza, arrakastatsuenak

Ingelesak sekulako arrakasta izan du aurten. Denera 30 bat ume eta heldu dabilta; izan ere, helduen taldea ere osatu da. Yogak ere arrakasta izaten jarraitzen du eta oraingoan ere hiru talde osatu dira 25 lagunekin. Asteartetan bi saio izaten dira eta ostegunetan bat. Lourdes Berrondo da momentu honetan irakaslea, baina azarotik aurrera Aline Loitzenbauer bueltan

izango da.

Bestalde, azken urteetan bezala, euskal dantzan 20tik gora ume ariko dira. Hori horrela, oraingoan hiru talde osatu dira eta zaharrenek ostiraletan entsaiatuko dute. Eta helduen taldeak ere jarraipena izango du. 8 lagun ariko dira bi ostiraletik behin klaseak jasotzen.

## Gitarra eta pianoa, txikientzat egokituta

Aurtengo ikasturtean ere, gitarran txikien taldea osatu da eta ordu erdiko saioak izango dituzte. Pianoan ere txikientzat moldatu dituzte ordutegiak eta ordu erdiko saioak izango dituzte.

Horiez gain, honako ikastaroak daude: zumba, hipopresiboak, musika tailerra, panderoa eta trikitixa.

## Pilatesen, irakaslea falta

Pilatesen taldea osatu da, baina azken momentuan iazko irakasleak ezin izan du jarraitu eta irakasle gabe geratu da taldea. Ikastaroak antolatzen dituztenek saiakerak egin dituzten arren, ez dute irakaslerik lortu. Beraz, baten batek

irakasleren bat ezagutuz gero, jarri dadila harremanetan dinamizatzailearekin (Karmele).

## Patin roller, martxotik aurrera

Ikastaro berri baten proposamena egin zen: patin roller. Interesa azaldu dutenak kontuan hartuta, osatuko da taldea, baina udaberri aldera izatea erabaki da. Hiru hilabetekoa izango da, martxotik maiatzera. Dena dela, otsailean irekiko da berriz epea izena emateko eta orduan zehaztuko da egun eta ordutegia.

## Lekua egonez gero, apuntatzeko aukera

Ikastaroak martxan daude, baina lekua dagoenetan apuntatzeko aukera badago oraindik. Hiru bide daude:

- Kultur etxetik pasa: astelehene-tik ostegunera (15:30-19:30) eta ostiraletan (10:00-14:00).

- Telefonoz deitu: 943 31 30 30 / 606 311 734.

- Idatzi helbide hauetara: ieltxokulturelkarrea@ymail.com edo herrikontseilua@igeldo.eus.

# 9 ikasle eta 7 irakasle berri, eta baita zuzendaritza ere

Ikasturte hasiera gogorra izan dela adierazi du Eskolak, June Aranguren ikaslearen heriotza tarteko.

2018-19 ikasturteari hasiera eman diogu. Hasiera gogorra izan da. Irailaren 14an ezusteko berria jaso genuen; June Aranguren Zubeldia ikaslearen heriotza. Irailaren 17an, astelehenean, Juneri agurra egin genion eskolan. Egun oso hunkigarria izan zen.

## 69 ikasle aurten

Ikasturte honetan 69 ikasle ditugu

eskolan. 2 urteko 7 ikasle berri hasi zaizkigu. Hauxe gain 2 ikasle berri gehiago ere baditugu; 5 urteko neskatoa eta 4. mailan mutiko bat. Aldaketa ugari izan ditugu; 7 irakasle berri eta zuzendaritza talde berria. Oso jende jatorra eta langilea. Gauza politak egingo ditugu.

## Zientzia lantzen

Lehenengo hiruhilabetean landuko

dugun proiektua zientzia da. Ikasle eta irakasleak zientzialari bihurtu gara. Proiektuarekin lotutako lehen irteera urriaren 5ean egin genuen, Zientzia Museora. Bertan, tailer desberdinak egiteko aukera izan genuen; baita, museoa ezagutzeko aukera ere. Eskolan esperimendu asko egingo ditugu eta mila gauza gehiago... Gauza pila ikasi eta ongi pasako dugu.

## 'Gona gorria' bideoklipa aurkeztu zuen Porrotxek

Irailaren 26an Porrotx pailazoa eskolan izan genuen. Ikasleek, irakasleek, gurasoek eta herritarrek, iaz eskolan grabatu genuen Gona Gorriaren bideoklipa ikusteko aukera paregabea izan genuen. Bideoklipa ikusteaz gain, Porrotx pailazoarekin abestu eta dantza egin genuen. Argazki batzuk ere atera genituen. Primeran ibili ginen!



# Azken urteetako ume gehiena dabil aurten pelotan

Astearte eta ostegunetan izaten dira saioak 17:30etatik 19:00etara eta pelota elkartetik gogorarazi dute saioak irekiak direla.

Sekulako arrakasta izaten ari da aurten pelota eta azken urteetako ume gehiena dabilela azaldu dute pelota elkarteko kideek. 16 bat umeren bueltan elkartzen ari dira; iazko kopuruarekin konparatuta, bikoitza. Mutil zein neska ari dira eta gustora daudela azaldu dute aurten 6 bat neska animatu direla-

ko. Gehiago ere gustora hartuko dituztela eta deialdia luzatu dute.

Saioak astearte eta ostegunetan dira 17:30etatik 19:00etara, eta gogorarazi dute irekiak direla: «ez dago aurretik apuntatu beharrik, pelotan ibili nahi duena azaldu dadila lasai». Bi begirale ariko dira ikasturte osoan zehar.

## Pala ere bai, tarteka

Aurreko ikasturtean, eskuz eta palaz aritu ziren, txandaka. Aurten horrela antolatzeko aukerarik ez dute izango seguruena, ume asko baitira, baina tarteka palaz ere ariko direla azaldu dute.

Herriko umei animatzeko dei egiten diete.



## Lezkarri ere martxan da berriz

Lezkarri abesbatzak ere ekin dio ikasturte berriari eta Laida Otaduy zuzendari berriaren gidaritzapean ariko da orain. Asteazkenetan jarri dute entsaiatzeko eguna Itsas Aurren, 19:30etan. Zuzendariaz gain, beste pare bat kide berri ere

badituzte, Usurbil eta Anti-guokoak.

Bestalde, lau baja ere izan dituzte eta tenoreak eskas xamar geratu dira orain. Beraz, kantuan aritzea gustoko dutenei dei egiten diete animatzeko eta gerturatzeko abesbatzara.

## Haurreskolak, atearak zabalik

Irailarekin batera jarri zen abian Haurreskola ere eta nahiz eta ikasturtea martxan izan, atearak zabalik dauzkate behar izanez gero. Izan ere, bi geletan (0-1 eta 1-2 adinetakoak), plaza hutsak gertzen dira oraindik.

## IGELDOKO ARRANO ETXEA

# Hiru hamarkada animalia basatiak zaintzen eta osatzen

*Igeldoko Arrano Etxean izan gara oraingoan Orri Informatiboko kideak.*

*Bertan egiten duten lana gertutik ezagutzeko aukera izan dugu.*

Igeldon gehientsuenok badugu Arrano Etxearen berri. Iturrietatik Agiti bidea hartu eta eskubitara dagoen etxea da. Baina zer da bertan egiten dutena eta ze animalia mota bizi dira bertan? Alderdi hori ez dugu hain ezaguna eta jakinmin horrek bultzatuta elkartu gara bertako kideekin. Mikel Urruzola igeldotarra izan dugu gidari.

Arrano Etxeak bi funtzio argi dauzkala azaldu digute: alde batek, zauritutako Gipuzkoako animalia basatiak jasotzen dituzte eta errekueratu ondoren, beraien natur ingurunera bueltatzen dituzte; eta bestetik, animalia exotikoak edo bertakoak ez direnak jasotzen dituzte. Aterpea ematen diete hemengo natur ingurunean askatu ez ditzaten eta arazoak edo kalteak sortu ez ditzaten.

### 33 urteko ibilbidea

Arrano Etxea 1985 urtean jarri zen martxan, Aranzadiko kide batzuen ekimenez: Joxan Albisu eta Txema Faus. Hain zuzen, Joxan Albisu eta bere emazte Mertxe Garciairen etxean jarri zuten abian proiektua; Igeldon.

Handik urte betera, 1986an legezatu zen, Aranzadirekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmenak medio, eta gaur egun, Foru Aldundiaren parte da. Ordura arte ez zegoen halako zentrorik Gipuzkoan eta oraindik, bakarra izaten jarraitzen du.

### Lan boluntarioa eta profesionala

Esan bezala, Arrano Etxearen



Ahateak, paumak eta antzarak daude Arrano Etxean, etxabereei dagokienean.



Animalia exotikoak ere badauzkate. Argazkian, ninfak eta kotorra bat ageri dira.

arduradunak Joxan Albisu eta Mertxe Garcia dira, senar-emazteak. Lanbidez, pediatra eta psikologoa izan badira ere, animalienganako maitasunak bultzatu izan ditu zeregin honetara; guztiz boluntarioa dena.

Beraiez gain, hiru langilek osatzen dute lantaldea: Jose Luis Gonzalezek mantenimenduaz arduratzen denak, eta Axun Balerdi eta Mikel Urruzola amaseme igeldotarrek. Balerdik 15 urte daramatza bertan lanean eta

Urruzolak 5 urte inguru. Kanpoan dauden animaliak zaintzeaz arduratzen dira; batez ere, janaria emateaz eta garbiketaz.

Izan ere, Arrano Etxean jasotzen dituzten animaliak kanpora atera aurretik, etxe barruan zaintzen dituzte Albisu eta Garciak. Halaxe azaldu digu Urruzolak: «Gaixorik, gosetuta, ahul edo egoera txarrean jasotzen ditugu animaliak eta hasierako harrera hori Joxan eta Mertxek egiten dute. Askotan, kumeak ere izaten dira. Jan egin behar dute eta etengabeko arreta behar dute. Behin ondo jaten dutela eta beraien kabuz moldatzeko gai direla ikustean, kanpora ateratzen ditugu. Animalia bakoitzarentzako egokিতuta dauden eremuak dauzkagu».

Arrano Etxearen funtzionamenduan oinarriak hiru direla diote: teknikoek, profesionalek eta boluntarioek osatutako taldea izatea; 24 orduko arreta eskaintzea; eta herri-tarren kolaborazioa izatea.

**Hegaztiak, batez ere**

Jasotzen dituzten animalia motei dagokienean, batez ere, hegaztiak sartzen dira Arrano Etxean. «Sorbeltzak, burubiak, kaioak, urubiak... izaten dira asko», dio Urruzolak. Urte sasoiak ere eragiten duela dio: «Udaberrian kumeak izaten dira asko, kabitik eroritakoak, eta maiz urubiak izaten dira. Ehiza garaian, berriz, tirokatutakoak jasotzen ditugu eta negu partean, itsas-txoriak, denboraleak eraginda».

Eta gaineratu du, aurten putre asko jaso dituztela: «Nonbait udaberria emankorra izan da aurten eta kume asko jaiotzen dira. Urtebete inguruko putreak iritsi zaizkigu gosetuta».

**Ugaztun, anfibio eta narrastiak ere bai**

Hegaztiak nagusi badira ere, ugaztun, anfibio eta narrastiak ere izan ohi dituzte. Momentu honetan, espezie desberdin asko dauzkate. Basoko animaliei dagokienean:



Lororen bat edo beste ere badago (argazkian). Baita agapurnia eta guakamaioa ere.



Animalia exotiko ugaztunak ere badaude; akuriak, esaterako.



Orkatza ikusteko aukera ere izan genuen.

zapelaitzak, urubiak, hontza txuriak, putreak, belatzak, kaioak, lertxunak, azeriak eta orkatza.

Etxabereei dagokienean: paumak, ahateak eta antzarak. Eta animalia exotikoei dagokienean: urretako eta

lurreko dortokak, loroak, agapurnia, guakamaioa, untxiak, akuriak...

### Hirutik bi errekuperatu

1986tik 2017ra bitarteko datuak kontuan hartuta, 32 urtetan, 10.543 animalia sartu dira Arrano Etxean eta 6.920 itzuli ziren beraien habitatetara. Beraz, %66 errekuperatu ziren; hau da, hirutik bi bere onera ekarri dituzte. Ez dute lan makala egin!

Nola askatzen dituzten ere azaldu du Urruzolak: «Gutziz errekuperatuta eta beraien natur ingururena bueltatzeko prest daudela ikusten dugunean, basozainari deitzen diogu. Beraiek arduratzen dira animaliak askatzeaz. Normalean mendietan askatzen dira. Anillak jarrita askatzen dituzte eta jarraipena egiten diete».

“ Animalia exotikoak ez askatu sekula gure natur ingurunean. Arrano Etxearekin harremanetan jarri ”

### Nola jasotzen dituzte animaliak?

Basoko animaliak Arrano Etxean sartzearen arrazoiak asko dira: argalegi egotea, gaixorik, kabitik eroritako kumea izatea, kolperen bat hartuta egotea, petroleoarekin egotea, pozoituta, tranpan eroria, tirokatua...

Normalean, partikularrak izaten dira telefonoz harremanetan jartzen direnak edo zuzenean animaliak bertara eramaten dituztenak. Gehienetan hegazti txikiak izaten baitira. Animalia handien kasuan, berriz, basozainaren bidez egiten dute.

### Animalia exotikoekin, prebentzioa gakoa

Animalia exotikoei dagokienean, argi dute prebentzioa dela gakoa eta hartu beharreko neurriak honakoak direla: «hasteko, ez



Uretako dortoka mordoa dauzkate eta lurreko beste hainbat ere bai.

erosi; erosiz gero, behar bezala zaindu; eta ez badugu zaintzen jarraitu nahi, ez askatu sekula gure natur ingurunean eta Arrano Etxearekin harremanetan jarri».

Arrano Etxeak zentzu horretan funtzio garrantzitsua betetzen duela dio Urruzolak: «Lehen sekulako arzoa zegoen, jendeak, nazkatzen zenean, edozein lekutan uzten zuelako animalia hori eta horrek kalteak dakartza bertako natur ingurunean. Gutxienez orain, hona ekartzen dituzte. Baina ikaragarria da. Dortoken kasuan, adibidez, izugarri pila dauzkagu».

### Umeekin lanketa eskoletan

Gizarteko lana egiten ere saiatzen dira Arrano Etxeko boluntarioak eta sentsibilizazio programak ere badauzkate. Besteak beste, lanketa egiten dute eskoletan, umeek natura eta animaliak errespetatu

tzen ikasi dezaten. Horren barruan, Ibai ikastolako ikasleekin errekuperatutako hegaztiak askatu izan dituzte eta iazko ikasturtean, Igeldoko Eskolako umeekin ere bai. Urruzola bera joan zen herriko umeengana. Miru beltza askatu zuten. Ikasturte honetarako ez dute ezer zehaztua, baina saiatuko dira Igeldon ekimen honekin jarraitzen.

### Ezin bisitatu

Leku interesgarria da Arrano Etxea eta animaliak ikustera bat baino gehiago joango litzatekeela badaki Urruzolak, baina ez dago bisitatzeko aukerarik: «Izan ere, osatzen direnean beraien habitatetara itzuli behar dute eta ez da komeni pertsonekin kontaktu asko izatea», azaldu du.

Beraz, erreportaje honekin konformatu beharko duzue!

#### Arrano Etxearen ezaugarriak:

- Etxe partikularra - 24 orduko arreta
- 6.000 m2 lursail
- Uretako hegaztientzako parkea eta putzua
- Hegalekoen gunea
- Narrastientzako gunea
- Ugaztunentzako gunea
- Lurreko dortokentzako gunea
- Galapagoentzako putzuak

Harremanetarako: 943 210 584 telefonoa;

mertxejoxanarranoetxe@gmail.com; www.arranoetxea.net



# Udazken Festa, ekintzaz beteta

Udazken Festa datorren asteburuan izango da, urriak 26, 27 eta 28. Hiru egunez, ekintza ugari izango dira adin ezberdinetako herritarrentzat. Ostiralean, pentsionisten inguruko hitzaldia izango da eta larunbatean,

umeek gozatzeko aukera izango dute bizikleta buelta eta zirko tailerrarekin. Arratsalde-iluntzea, kantu jirak eta Mexikortxo Bandek girotuko dute. Igandean, berriz, ez dira faltako azoka, erromeria, bazkaria eta taloak!

## UDAZKEN JAIA 2018

### URRIAK 26 OSTIRALA

**19:00etan HITZALDIA:** "Pentsioen beste errealitatea" Duintasuna elkartearen eskutik eskolan.

**Ondoren "LUNTXA" eta solasaldia** Itxas Aurre kultur etxean.

### URRIAK 27 LARUNBATA

**10:00etan BIZIKLETA PASEOA** haur eta gurasoentzat. Bidean hamaiketako banatuko da. Bi ibilbide izango dira aukeran:

- 7-8 urtetik beherakoentzat
- 9-10 urtetik gorakoentzat

**13:30etan BAZKARIA** plazan. Bakoitzak etxetik ekarritako bazkariarekin.

**16:30etan ZIRKO TAILERRA** haur eta gaztetxoentzat Txatxilipurdi elkartearen eskutik.

**19:00etan KANTU JIRA** herriko tabernetan zehar Lezkarri abesbatzak girotuta.

**20:30etan BOKATAK** herriko plazan.

**22:00etan MEXIKORTXO BAND-en** eskutik afaloste mexikarra.

### URRIAK 28 IGANDEA

**10:30-13:30 AZOKA** herriko eta inguruko produktuekin.

*\*Bakoitzak etxetik bere poltsa edo zorroa ekartzea denok eskertuko dugu.*

**11:00-13:30 ERROMERIA:** Laja II eta Lutxurdio trikitilariak girotuta.

**14:00etan HERRI BAZKARIA.** Din Din Elkarteak prestatuta. Bertan herriko aitona-amonak omenduko dira.

*Bazkarirako txartelak Txapela tabernan salgai: helduak 25€ / haurrak 12 €*

*\*Txartelak erosteko azken eguna: urriak 26 (ostirala)*

**18:00etan TALOAK** dastatzeko aukera Igeldoko talogileen eskutik.

**OHARRA:** Igandean plazan barra irekiko da pintxo eta guzti: 9:00-14:00 / 18:00-21:00

## OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak abenduan eta martxoan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



**IGELDOKO  
HERRI  
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea  
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo  
Tfona. 943 313 030  
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea **Donostiako Udala**